

2024-10-03

PRENTSA-OHARRA

**CATERING-MAKROENPRESEK KUDEATUTAKO JANTOKI-EREDUA BLINDATU  
DU HEZKUNTZA SAILAK IKASTETXE PUBLIKOETAN**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bi agindu argitaratu berri ditu, 2000. urtetik indarrean egon den jantokien araudia indargabetzen dutenak. Urte guzti hauetako familien eta hezkuntza komunitateen aldarrikapen historikoei erantzuteko aprobetxatu du? Inolaz ere ez.

Izan ere, araudi berriak catering-makroenpresek kudeatutako jantoki-eredua blindatzentzu, hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoan oinarritutako eskola-jantoki publiko osasuntsuago, jasangarriago eta pedagogikoago bati atea itxiz.

Hala, [agindu berriaren](#) 2. artikuluak ezartzen duenez, "sektoreko enpresak kontratatuko dira jantoki-zerbitzua emateko". Hala, 2000. urteko araudiak kudeaketa desberdina ahalbidetzeko zituen aukerak itxi dira, hala nola ikastetxearen bidezko kontratazio zuzena (11. artikulua) edo baimendutako erakundeen bidezko kudeaketa (24. artikulua).

Eusko Legebiltzarra 2019an aho batez onartu zuen "kudeaketa berritzairel eta desentralizatua aukeratzen duten ikastetxeentzako aukera bideragarriak ahalbidetzera bideratutako sistema osagarri baten oinariak zehaztea" eta proiektu pilotuek urteak daramatzate jantoki osasuntsuago, jasangarriago eta parte-hartzaileagoa posible dela frogatzen, baina Hezkuntza Sailak entzungor egin du eta gure seme-alaben elikadura catering-makroenpresen esku utzi du.

Azken urteotan, hainbat eragileren eskaerari erantzunez, Hezkuntza Sailak eskola-jantokiak kudeatzeko beste eredu batzuk aztertzeko "asmoak" agertu ditu. Baina promesa amaigabeen ondoren, dena berdin mantentzea eta eskola-komunitateak etengabe zalantzan jartzen duen eredua iraunaztea erabaki du. Engainatuta sentitzen gara.

Ildo horretan, agindu berriak ez du ezer berririk planteatzen eskola-jantokiak bete behar duen funtziopendagogikoari dagokionez. Ikastetxeoko gainerako espazioen maila berean egon beharko lukeen elikadura-ohitura osasungarriak sustatzeko tresna garrantzitsua izanik, ez du horren aldeko apusturik egiten. Hala, ez du sartzen eskola-jantokia ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, "uharte" moduko bat bezala mantenduz. Haurrek eskola-denboraren % 30 jantokian igarotzen dutela kontuan hartuta, zergatik da utzikeria hori?

Jantokiaren funtziop pedagogikoaren alde egiten ez duenez, ez du inolako erreferentziarik egiten jantokiko langileek izan behar duten profilari eta prestakuntzari buruz, eta ez du inolako hobekuntzarik proposatzen ratioetan eta langile-horniduran.

Era berean, ez dugu inolako erreferentziarik aurkitu sukaldeen eraikuntzari buruz. Horien bidez soilik bermatu daitezke elikagai freskoekin, sasoikoekin, lokalekin, jasangarriekin eta kalitatezkoekin egindako menuak, baita xahuketa minimizatzea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko 17/2023 Legeak honako hau ezartzen du 37. artikuluan: "Ikastetxeko hezkuntza-proiektuan sartuta dauden eskola-jantokiek bere zeregin pedagogiko indartuko dute, eta eskola publikoaren plan estrategikoaren parte izango dira, haien azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko". Paper erreka berriro?

EHIGEk jantokiaren funtzió hezitzalean sinesten du eta inguruneari eta iraunkortasunari lotutako elikagaien kalitatea lortzearen aldeko apustua egiten du. Horregatik, **kontrako norabidean doan agindu berri honen aurka gaude erabat, eta familien eskaerei erantzuteko eskatzen diogu Hezkuntza Sailari.**

Gure aldetik, eta urte hauetan guztietan egiten ari garen bezala, lanean jarraituko dugu Euskal Eskola Publikoarentzat jantoki osasuntsuagoak, jasangarriagoak, pedagogikoagoak eta parte-hartzaleagoak lortzeko.

NOTA DE PRENSA

## EDUCACIÓN BLINDA EL MODELO DE COMEDOR GESTIONADO POR MACROEMPRESAS DE CÁTERIN EN LOS CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS

El Departamento de Educación del Gobierno vasco acaba de publicar dos nuevas órdenes que derogan la normativa de comedores que ha estado vigente desde el año 2000. ¿Ha aprovechado para dar respuesta a las reivindicaciones históricas de las familias y las comunidades educativas de todos estos años? Rotundamente no.

Y es que la nueva normativa blinda el modelo de comedor gestionado por macroempresas de cáterin, cerrando la puerta a cal y canto a un comedor escolar público más sano, sostenible y pedagógico basado en la participación democrática de su comunidad educativa.

Así, el artículo 2 de [la nueva Orden](#) establece que “el servicio de comedor se prestará mediante la contratación con empresas del sector”, anulando las posibilidades con las que contaba la normativa de 2000 para permitir una gestión diferente, como la contratación directa a través del centro (artículo 11) o la gestión a través de entes autorizados (artículo 24).

Aunque el Parlamento vasco aprobó por unanimidad en 2019 “concretar las bases de un sistema complementario dirigido a posibilitar opciones viables para aquellos centros educativos que opten por una gestión innovadora y descentralizada” y los proyectos piloto llevan años demostrando que un comedor más sano, sostenible y participativo es posible, el Departamento de Educación ha hecho oídos sordos y deja la alimentación de nuestras hijas e hijos en manos de macroempresas de cáterin.

En múltiples ocasiones, en respuesta a la demanda de diferentes agentes, el Departamento de Educación ha mostrado “intenciones” de estudiar otros modelos de gestión. Pero después de infinitas promesas, ha optado por mantener todo igual y perpetuar un modelo continuamente cuestionado por la comunidad escolar. Nos sentimos engañadas.

En esta línea, la nueva Orden tampoco plantea nada nuevo en lo que respecta a la función pedagógica que debe cumplir el comedor escolar. Siendo una importante herramienta para fomentar hábitos alimenticios saludables que debería estar al mismo nivel que el resto de espacios del centro escolar, no realiza ninguna apuesta en este sentido. Así, no incluye el comedor en el Proyecto Educativo de Centro, manteniéndolo como una especie de “isla” en el centro escolar. Teniendo en cuenta que los niños y niñas pasan un 30% de su tiempo escolar en el comedor, ¿a qué se debe esta dejadez?

Al no apostar por la función pedagógica del comedor, tampoco hace referencia alguna al perfil y la formación con la que debe contar el personal de comedor, ni plantea ninguna mejora en las ratios ni la dotación de personal.

Tampoco hace alusión a la construcción de cocinas en los centros, imprescindibles para elaborar menús con alimentos frescos, de temporada, locales, sostenibles y de calidad, y minimizar el despilfarro.

La Ley 17/2023 de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco establece en su artículo 37 que “los comedores escolares, integrados en el proyecto educativo de centro, reforzarán su papel pedagógico y formarán parte del plan estratégico de la escuela pública, con el fin de mejorar sus infraestructuras y servicios”. ¿Otra vez más papel mojado?

Desde EHIGE creemos en la función educativa del comedor y apostamos por lograr una calidad alimentaria vinculada al entorno y la sostenibilidad. Por ello, **nos oponemos rotundamente a esta nueva orden que va en la dirección contraria y exigimos al Departamento de Educación que atienda a las demandas de las familias.**

Por nuestra parte, y como venimos haciendo durante todos estos años, seguiremos trabajando para conseguir para la Escuela Pública Vasca unos comedores más sanos, sostenibles, pedagógicos y participativos.